

208. ZENBAKIAKIN PRO BAT
2012ko MAIATZ

www.baleike.com

25 URTEKO PARTIDA


Mende laurdena daramate futbolean Zumaiako emakumeek; hasierako garaiak gogoratu ditugu protagonistekin



Kalitatezko
produktuak

Gipuzkoako
Okelaren
Ziurtagiria:
GI-OKELA

Juanjo Larrañaga harategia



ZUMAIA

Basadi auzategia, 4. Tel./Faxa: 943 860 621

ZARAUTZ

Salegi kalea, 14. Tel./Faxa: 943 890 215

BALEIKE 208

AZALA G. Zabaleta



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkartea@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustín Zubimendi,

Xabier Azkue, Gurenda Serrano.

Erredakzio taldea: Xabier Aizpurua, Imanol Azkue,

Abelin Linazisoro, Ainara Lozano Lasa,

Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbietta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

9

baleike +

BALOIA OINETAN, OZTOPOAK DRIBLATZEN

4

hitz-tantak

MARIJO AIZPURUA

7

iritzia

NI ERE HAN IZAN
NINTZEN

21

erreportajea

EUSKARAREN
ARGI-ILUNAK
MAHAI GAINEAN

29

agenda

MARTXOA

31

bertso xorta
ZUGA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udal



“Mendizaleek eman didate saria”

Saritua izan da berriki. Xebe Peña garaikurra eman diote, Euskal Herriko Mendi Federazioak antolatuta. Mendi martxak egiten ditu, eta hilaren bukaeran ekingo dio denboraldiari. Kirola egiteko zale amorratua izan da beti.

TESTUA: AITOR MANTEROLA


ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA ETA MARJO AIZPURUA

Duela aste pare bat eman zizun Euskal Herriko Mendi Federazioak Xebe Peña saria. Kontatuko al diguzu nola edo zergatik izan den?

Urtero ematen ditu sariak, batzuk eskalatzaileentzat, besteak korrikalarientzat, beste batzuk mendi martxetan ibiltzen garenontzat. Mendizaleok aukeratzen dugu zein den irabazlea, eta ni aukeratu ninduten iaz mendi martxa gehien egin nituelako.

Nola egiten da aukeraketa hori?

Euskal Herri osoan izaten dira martxak. Federaziok bost lurralde dauzka banatuta: Hegoaldeko lau probintziak, eta Iparralde osorik. Saria lortu ahal izateko, finalista izan beharra dago, eta horretarako zortzi martxa osatu behar dira. Eta zortzi horietako bost, lurralde desberdinetan egin behar dira, bana bakoitzean; gero, beste hirurak nahi diren lekuan egin daitezke. Finalista guztien artean aukeratzen dugu mendizaleok Xebe Peña



Saria norentzat den. Lehen, bazkari baten ondoren egiten zen bozketa, eta klaro, ez zen oso egokia. Aurten, ordenagailu bidez bozkatu dugu, eta 100 bat lagun ginen irabazteko aukera genuenak, eta niri tokatu.

Zenbat egin zenituen?

Hemezortzi. Hogeita bi ziren, denera. Hemeretzigarrena ez nuen bukatu, galdu egin ginelako bidean.

Zenbat kilometroko martxak izaten dira?

Arautegia dago, eta gutxienez 40 kilometrokoak izan behar dute, eta altuera 2.000 metrotik gorakoa, positiboan. Bideak zehaztuta egon behar du, jan-edanerako lekuak ere izan behar dira, eta gehienetan, denbora baten barruan egin beharra dago ibilbidea.

Zenbat izaten dira urteko?

Hogei-hogeita bost inguru.

Noiztik zabilta mendi martxak egiten?

Urte batzuk badira. Zestoan hasi nintzen, etxetik gertu dagoela eta. Gero, halako batean, Arri Urbietak esan zidan Aralarko 14 orduetako martxa egin behar zutela, eta animatzeko. Joan nintzen. Ez zela gogorra esan zidaten. Sakanakoa egin zutela, eta hura zela gogorra. “Hurrengo urtean hura egin behar dugu!”, bota zidaten. Eta egin genuen. Han hasi nintzen. Ordurako eskubaloia utzita neukan, eta asteburuak betetzeko egokia zen. Gainera, jende asko ezagutzeko aukera eman dit.

Ibiltari asko biltzen al zarete?

Gezurra dirudi, baina asko izaten gara. Aralarko horretan 3.000 izaten gara. Villabonakoa izaten da urteko aurrenekoa, eta 700 bat lagun biltzen gara. Asko da, 40 kilometro egin, egin behar dira gero!

Eta, jakina, behar bezala prestatu behar duzue, ezta?

Denetarik egoten da, baina komeni da prestatzea. Aldapak izaten dira, gainera. Gora gogorra da, baina behera ez da samurragoa. Goxatzeko prestatuta joan behar da. Azkenean, zortzi bat ordukoak izaten dira. Oinetakoek eragindako kalteak direla, nekea dela, nekagarria egiten da. Oinetakoak aipatuta, esan behar dut oso jende gutxi joaten dela orain mendiko botekin; ni naiz horietako bat. Trekkineko oinetakoak erabiltzen dira orain.

Izango duzu martxa kuttunen bat, ezta?

Politak badaude, bai. Sakanakoa, adibidez. Altsasukoa ere bai.





MENDI LASTERKETAK

Flysch Trail mendi lasterketan ere parte hartu izan du Marijo Aizpuruak.

Alaizkoa oso aldakorra da klimaz: lehorrean hasi, gero basoan barrena... Hiru Handiak ere ederra da. Behin egin genuen, eta aurten ere han izango gara. Aizkorri, Anboto eta Gorbeia igo behar izaten dira, 100 kilometro inguruko ibilbidean. Lehen, martxazaleon gorenaren hori, baina orain, Ehun Miliak atera dutenetik, hori da gorenaren. Gainera, jendea Euskal Herriatik kanpo ere joaten da, Mont Blancera eta. Astakeriak egiten dituzte; gu afizionatuak baino ez gara [barrezka].

Zer dela eta gustatu zaizkizu hainbeste mendi martxak?

Bazter berriak ezagutzen ditut, giro ederrean ibiltzen naiz, jendea ezagutzen dut, eta ariketa pixka bat egiten dut. Saltsa polita izaten da. Korrika egiteari utzi egin behar izan diot belaunetik gaizki nabilelako, eta mendiarena aukera da kirola egiten segitzeko.

Noiz hasten duzue denboraldia?

Martxoaren bukaeran hasten da Federazioaren

egutegia, Villabonan. Eta amaitu azaroaren bukaeran amaitzen da. Nafarroan ere badaude beste proba batzuk. Motzagoak neguan ere egoten dira, 20-30 kilometroren bueltakoak. Halakoak urte guztian izaten dira.

Menditik goazen beste kirolelara. Eskubaloian ezagutu zintugun, eta aurrenetakoak izango zineten taldeko kirolean jokatzeko, ezta?

Bai. Emakumeak taldean orduan hasi ginen. Gurea koadrilla zen, eta hamar lagun aritu ginen lau urtean.

80ko hamarkada izango zen garai hura. Nolakoa zen orduan emakumea eta kirola harremana?

Oso neska gutxi egiten zuen kirola orduan. Guri soinketako irakasleak sartu zigun harra, eta horrela ekin genion eskubaloari. Ondo ibili ginen.

Orain aldatuta dago emakumea eta kirola harreman hori. Egoera normalizatuago dago. Zer gogoeta eragiten dizu?

“Bazter berriak ezagutzen ditut, giro ederrean ibiltzen naiz, jendea ezagutzen dut, eta ariketa pixka bat egiten dut”

Azken 15-20 urtean asko berdindu da egoera, gizona eta emakumezkoek pare-parean gauden ez dakidan arren. Orain normala da emakumeak kirola egitea, eta nahi duenak aukera dauka. Eta emakumea tabernetan sartzea ere normala da, hori ez baitzegoen ondo ikusia garai batean.

Korrika ere asko ibili zara.

Saiatu, kirol askotan saiatu nintzen. Eskubaloian Zarautzen ere jokatu nuen. Zumaiako taldea hautsi egin zen, ikasketak eta halakoak tarteko. Gero, berriz Zumaiaren osatu zen taldea. Eta azkenean, korrikari heldu nion.

Zumaiako Herri Lasterketan hasi al zinen?

Ikusten nituen besteak lasterka, eta neure buruari esaten nion “Hori ari bada, ni zergatik ez?”. Halako batean animatu nintzen irtetera, eta gero, inguruko herrietako lasterketa motzetan ere ibili izan nintzen. Baina beti 10 bat kilometrokoak. Luzeagoetan, ez. Behin egin nuen Behobia-Donostia, eta Zakila Bira ere bai, baina gehiegi zen niretzat, pisu handikoa naizelako. Horrekin arazoak izan ditut beti, eta gehiegi ez hartzeko, besteak beste, egin izan dut kirola.

Lanbidez medikua zara, eta izan duzu aukerarik ogibidea eta kirola uztartzeko?

Bai. Talde askorekin ibili naiz. Eskubaloiko federazioarekin ere hartu-eman eduki dut. Suedia ere ezagutu genuen horren kontura, txapelketa bat jokatzera joan zelako gazte mailako euskal selekzioa hiru urtez. Bizikletako probetan ere aritu naiz, eta beti errezatzen, inor eror ez zedin. Hori bai, Zestoako zezenketan baino gehiago ez dut inoiz erreztatu. Hain zezen plaza eskasa, hain zezen handiak, eta hain torero txarrak... “Hemen zerbait pasatzen bada, nik zer arrazo egin behar dut?”, galdetzen nion neure buruari. ■

7
MARIS
7 MARIS izotzuak

Arrain eta mariskoak
Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309

a3

Alai auzategia 8
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala
tel/Faxa: 943 14 31 20

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak
a3zumala@terra.es

L I B R U D E N D A

AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

ALAI BERRI
supermerkatuak

Astelehenetik igandera 08:00etatik 15:00etara
eta 17:00etatik 22:00etara, urte guztian.
Etxera banaketa doan
Alai auzategia, 3 • 943 118 394

ALBERDI
dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 726188
943 143261

ALBERDI
Dj July

Musika onena eskontzetan,
kintoen ospakizunetan eta
era guztietako festetan

600 982 810
july_alberdi144@hotmail.com

ALGORRI
TABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA

ANA
ETXKO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157
anaseteakozapiak@telefonica.net

ILEA PAINDEGIA

D'Ana

Kantauri plaza, 6. behea
tel. 943 117 408

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROTEGIA

www.ardantzabide.com

Erakusketa. Hego kalea, 4-5
Denda. Txomin Agirre, 4
Tel.: 943 862 532

Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943 861 631

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Giroitza
- Iturgintza
- Energi berriztogarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com

OKINDEGIA
Arkitekto

Nagusia, 2 - tel. 943 561 601
ZUMAIA

OGI-EDER

ARRUTI
Baltasar Etxabe z/g
Zumaia 943016429

AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5
tel. 943 861 485

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943 148 306
bakun@euskalnet.net

Basadi
albaitaritza

Ribaitaria
Itaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310
www.basadiarribaita.com
www.basadiarribaita.com

Golez: 11-13 / Arrabaldoz: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatean itala
Lamiakidatzen: 605 728 737 Etxez ebeko zerbitzuak

BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25
tel. 943 862 073

BATELA
ARRANDEGIA

Izustarri, 2-4
Tel. 943 860 750

Ni ere han izan nintzen

ZUMAIAKO BI GAZTE

IRITZIA

–Aupa hi, zemouz habil??
–Ba hementxe, betiko martxan.
–Enteatu al haiz gaztetxe zaharreko kontuaz??
–Ba egia esan ez. Zeba??
–Ba itxura danez 80.000 euro eskatzen zizkiek ertzainak sartu hituan egunian barruan zitxaben gaztai. Etxejabiak esate omen dik etxia desastre bat inda utzi genila.

–Nola utzi genila? Hi re tartian al hao ba??

–Ez!! Baino ni re ibili ninduan han egun haietan ta nei etzitxen harrapau justu egun hartan han ez nitxolako. Baina beste egunen baten etorri ezkeo... ez ninduan urruti ibiliko.

–Arrazoia dakan! Ni re ibili nindunan, ta ni bezela beste jende pilua. Gogoratzen

naun lehenengo egunetan nola sartu gintunan etxe zahar hartan. Dana zixko inda zitxonan, desastre bat. Pareta danak ladrilo bistan, leihuak ia danak puskauta, zutabe danak pipiak janda, atiak bere lekutik ateata ...

–Bai motel. Aste oso bat pasa genin han bueltaka zikinkei dana kentzen!!!

–Gogoratzen al haiz nola zitxonan aurreko jardina?? Dana garbitu geninan, belarra moztu ...

–Ta sotua nola zitxon?? Hura bai huala desastria!! Puntalak jartzen ibili behar izan genin dana behera eroriko ote huan beldurrez. Ta gainea armiarma, arratoi, ... ze ez ote zitxon han!

–Bai neska!! Ta halare alu horrek 80.000 euro eskau!!! Arpegia ber din pertsonak e... Guri eman berko zitxunan dirua etxia fundamentuz jartzeatik.

–Bueno. Egia esan ondo pasa genian danon artian hura txukuntzen ta giro elegantia sortu genin.

–Bai. Nik oroitzapen ikiarri onak zazkanat uda hartatik. Gogoratzen naun nola etorri hitunan lehenengo egun hoietan Gaztelumendi anaiak bertso afai batea. Oso ona izan hunan. Hoi den hoi paria!

–Joe! Ta gaztetxeko lehenengo Sexplotion –en kontzertua?? Gaztetxia gainezka zitxon.



–Bai bai. Ta gauero gauero iten genizkinan asablada haiek... jende pilua elkartzen gindunan egun haietan ta egunero egunero gainea.

–Bai. Nik egunero bazkaltzen nian han. Egunero baten batek iten zin bazkaia ta earki jaten genin.

–Bazkaldu esan denela, gogoratzen al haiz “giri egunaz”?? A ze pintakin ate gindunan kalea. Ta geo paella lehiaketa.

–Gogorauko ez nauk ba.

Egia esan pixkat faltan botatzen diat egun haietan gaztiak elkarrekin lortu genin konplizidade hura. Sekula hitzein ez nian jendiakin hitzein nian ta bizi guztian hitzein izan banin bezela gainea.

–Horreatik zakanat hain oroitzapen ona. Gainea jendiak parte hartzen zinan ekintza desberdinetan.

Behin parodia bat in geninan gaztetxian bertan. Nik eninan sekula holako ezer ikusi Zumaiko gaztiakin.

–Ezta nik e. Mendira re juten gintuan danok elkarrekin.

Behin Anbotoa jun gintuan ta beste behin Aizkorrira. Ta hori ni

Sekula hitzein ez nian jendiakin hitzein nian ta bizi guztian hitzein izan banin bezela, gainea

ez nindula oso mendizalia.

–Ba usteinat oaindik e juten ditunela mendira tartian behin.

–Bai bai. Ta beste ekintzak e segitzen die antolatzen, baina ya enauk bate juten. Pena emateziak e baino...

–Ba egia esan nei re pena ematen zian.

Hi, ze iruitzezain hurrengo astian asanblada juten bagaitun? Ostiral arratsaldetan elkartzen ditun gaztetxian arratsaldeko 18:00 tan. Beti eduki izan dinat gogua baino lotsau itenaun bakarrik juteko.

–Ba biok jungo gaituk orduan ostiralian. Seguru desiatzen zeudekela jende berria juteko.

–Inda zion!

BALOIA OINETAN, OZTOPOAK DRIBLATZEN



Zumaiakoren emakumezkoen futbol taldea sortu zela 25 urte betetzen dira aurten. Futboleko jokatzeko gogoaz zuten 15 neskak eman zieten hasiera abentura hari Julene Azpeitia ikastetxeko patioan, eta mende laurden geroago, 80 neska inguru aritzen dira baloiari ostikadak ematen Aita Mari futbol zelaian, eta urrats sendoa egiten dute emakumezkoen kirolak gaur egun oraindik beharrezkoa duen egonkortasunaren alde.

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK:
ARNAITZ RUBIO APREA ETA ARTXIBOA





▲ 25 URTE ONDOREN

Ezkerreko argazkian 1996-1997 denboraldiko taldea dago. Emakumezkoen lehen taldea zen. Mende laurden geroago garaioko jokalariek bildu ditugu Aita Mari futbol zelaian erreportaje honetarako.

Emakumezkoen Superligan Athleticcek eta Realak goi mailako derbiak jokatzen dituzte, baina emakumeen futbola oraindik ere zerbait exotikoa balitz bezala ikusten du gizartearen zati handi batek. Kiroletatik erregea da futbola, eta batzuek gizonezkoen kirola bezala ikusten dute askok. XXI. mendean hala bada, zer ez zen izango 1980ko hamarkada hartan. “Gurasoei esan nienean futboleant hasiko nintzela, erantzuna izan zen: ‘Zertarako? Hanka puskatzeko?’. Familiak aurka genituen, eta ez pentsa kalean ere gure alde egiten zutenik. Nahikoa iseka egiten zituzten gure kontura”. Hala hitz egiten du Eva Romatetek. Futbol taldearen sorrera bizi izan zuen. Kontakizun honetan berekin dira Zumei Bilbao, Itziar Beristain, Rosa Ruiz eta Maria Lopez. Denen bizipenekin, Zumaian emakumezkoen futbolak azken urteetan egindako bidea laburbiltzen saiatu gara.

1986. urtea. Orrazkera berezien eta laka poteen garai hartan, emakumezkoek apenas zuten kirol taldeetan parte hartzeko aukerarik. “Eskubaloiak indar handia zuen, eta piraguismoa ere hor zen, baina horietaz aparte, beste ezer ez zegoen kirola egin nahi zuten neskenentzat”, gogoan du Evak. Kirolzalea izanik, futboleant jokatzea zuen gogoko. “Entzuten genuen beste herri batzuetan ari zirela taldeak osatzen, eta kalean hitz egin eta gero, klubarekin harremanetan jarri ginen. Zientzi fikzioa balitz bezala begiratu ziguten hasieran: ‘Zer ari zarete esaten?’. Ikusi zutenean serio ari ginela, esan ziguten jendea inguratzeke eta taldea osatzeko adina lagun genituenean berriro joateko”. Esan eta egin. Koadrilakoei

eta futbola gustuko zutenei “lata galanta” eman eta gero, 15-16 laguneko taldea osatzeko gai izan ziren. “Piraguismoan aritzen ziren neska batzuk ere lotu genituen, Mendizabal ahizpak. Eske-rrak haiei! Piraguismoarekin bukatzen zutenean, gurekin entrenatzera etortzen ziren”.

Fernando Martinez izan zuten lehen entrenatzailea. “Lehengusuekin futboleant aritzetik edo Kofradian baloiei ostikadak ematetik serio entrenatzera pauso handia zegoen”. Garai hartan benetako belarrezko zelaia zuen Aita Mari eta neskek ia debekatuta zuten han jokatzea. “Marmarra besterik ez zegoen: futbol zelaia izorratzen genuela, ez genuela belarra zapaldu behar, etab. Juleneko patioan eta Ayra Durez atzeko anexoan entrenatzen genuen. Egia esan, gaurko jokalariekin alderatuta fundamentu handirik ez genuen. Konpromisoa ere ez zen bera. Futbola gustatzen zitzaigun, baina ez genekien ezer. Dena erakutsi behar izan ziguten”.

Lehen denboraldian zazpi taldek hartu zuten parte ligan eta Zumaiaiko partidu bakarra irabazteko gai izan zen: 5-1 Urretxu-Zumarragari. “Ez dakit nola irabazi genuen ere. Huertos presidentek apustua egin zigun: partidu bat irabazten bagenuen, bizarra moztuko zuela. Apustua bete behar izan zuen. Eta horrela gaur arte! Fabore ederra egin genion”.

Anekdotak kontatzen hasi eta algaraka hasten dira bostak. “Partidu batean Margari gure atezainak hagineta mina zuen eta partidua gelditzeko eskatu zion epaileari, zelaiko kantinara joan eta

koñak kopa bat ekartzeko. Pentsa zer botikin izango genuen garai hartan!”, gogoan du Evak.

Garaiak bestelakoak ziren eta gaur ez bezala, jende oso gutxi hurreratzen zen emakumeen futbol partiduak ikustera. “20 lagun joango ziren gehienez: bizpahiru gu animatzera, eta besteak haragia ikustera. Esan daiteke dena kontra genuela eta hasi eta berehala taldea kendu ziguten”, dio penatuta Evak. Erabaki hura hartu eta gero hiru urtez jarraian ez zen emakumezkoen talderik izan Zumaian.

Zumaian futbolearen aritzeko aukerarik ez, eta Oriora joan zen Eva. Han egin zuen topo ‘Beristaintxo’-rekin. **(Itziar):** “Jendea behar zutela eta Oriora joan nintzen futbolearen jokatzerara. Han urtebete egin eta gero, hasi ginen berriro Zumaian talde bat osatzeko saiakeran. Jesus Mari Unanue zen orduan klubeko presidentea eta neska asko zeuden futbolearen jokatzeke gogoarekin. Zaltetasuna bazegoen. Aurrendenboraldia egiten 35-40 neska izango ginen eta asko kanpoan geratu ziren fitxarik gabe”. **(Eva):** “Beste fundamentu batekin hasi ginen. Paco Mora eta Fernando Alejandro ziren orduan entrenatzaileak. Hasi ginenetik lau urte pasa ziren, jende gehiago zegoen eta seriotasun eta gogo handiagoarekin ekin genion”. **(Itziar):** “Gauzak ere asko aldatu ziren garai hartan. Gipuzkoan talde gehiago zeuden”. **(Eva):** “Egoera hobe zen, baina oraindik hutsuneak zeuden. Zuzendaritzak ez

zuen borondate txarrarengatik egiten. Mutilek ez bezala, guk ezin genuen aurrera egin [emakumezkoentzat maila bakarra zegoen urte horietan], eta pentsatzen zuten nahikoa egiten zuela”.

Kamiseta eta galtza propiorik gabe, lehen urte haietan gizonezkoek utzitako jantziak erabili behar izaten zituzten. **(Itziar):** “Mutilei jantzi berriak ematen zizkieten, eta haiek uzten zituztenak guri ematen zizkiguten. Orain jokalariei ba-koitzak bere zenbakia du, baina orduan zelaian zenuen pos-tuaren arabera ziren zenbakiak”. **(Eva):** “Eta gure aurrelaria handia bazen eta mutilena txikia, ederki geunden!”. **(Itziar):** “Mutilei begira egoten ginen ondoen egokitzen zitzaigun kamiseta eskatzeko. Taldea berriz martxan jarri eta beste hiruzpalau urtean egon ginen egoera horretan”. **(Zumei):** “Mutilek neurri bakarra zuten, eta gure gorputzetarako egokiak ez baziren, askotan guk geuk erosten genituen geure jantziak”.

Uniformeekin bakarrik ez, partiduen ordutegiekin ere ez ziren konforme. **(Eva):** “Partiduak beti igande goizetan izaten ziren”. **(Itziar):** “Larunbatetan jokatzea oso zaila zen. Borrokan aritzen ginen egun horretan jokatzeke”. **(Eva):** “Larunbatetan anexoan jokatzeke aukera genuen, baina hartxintzarrezkoa zen, eta hankak izorratuta amaitzen zenuen”. **(Itziar):** “Bi aukera zeuden: larunbatetan anexoan edo igan-



dean belarretan”. **(Eva):** “Eguraldiak ere zerikusia zuen. Eguraldi txarra egiten bazuen ez ziguten uzten belarretan jokatzen, haien esanetan, ‘izorratuko genuelako’”.

Denborak aurrera egin ahala, klubaren zuzendaritza eta emakumezkoen taldearen arteko harremana hobetzen joan zen. **(Izias):** “Nik oroipen txarrik ez dut. Laguntza beti jaso genuen, presidentetik hasita”. **(Eva):** “Marmarrean ibiltzen ginen, baina gurekin ondo portatu dira. Beste klub batzuetara joan garenean egin dugu berriro topo emakumezkoen futboleko ohikoak ziren baldintza kaxkarrekin”. Hala ere, egoera korapilatsuak egon zirela agerian geratzen dira elkarriketan. **(Eva):** “Zuzendaritzarekin diskusio dezente izaten genituen. Jarraipenik ez genuela leporatzen ziguten. Baina baloratua sentitzen ez bazara, neska izanda futboleko inora ez zoazela ikusten baduzu, normala da futbola uztea. Mutil guztiek dute goi mailako talde batera joateko ilusioa. Neskekin ez da hori gertatzen. Neska izanda, gogo handia izan behar duzu futboleko jarraitzeko. Fundamentu falta dela diote. Jakin nahiko nuke jubenil mailako mutil batek zer fundamentu izango lukeen igande goiz guztietan jokatu beharko balu, parranda bat egiteko aukerarik

izan gabe. **(Rosa):** “Zenbat inauteritan, zenbat santelmotan jokatu behar izan dugu igande goizetan!”. **(Eva):** “Ohikoa zen guretzat igandeetan 09:00etan edo 10:00etan jokatzea. Ordu-tegi okerrean jartzen zizkiguten eta hori askotan salatu nuen zuzendaritzan. Preferentekoek zuten lehentasuna ordutegia aukeratzeko, baina gero txikitxoak ere gure aurretik jartzen zizkiguten”. **(Itziar):** “Zelai artifiziala eta argiteria jartzearekin aldatu zen hori”. **(Eva):** “Horren ondoren, garai batean, preferentearen ondoren guri ematen ziguten ordutegia aukeratzeko hurrengo aukera”. Hori dena kontuan izanda ere, urteen horien oroitzapenak dituzte. Taldeko kide guztien arteko giroa “mundiala” zela aipatzen dute.

Lehen urte haietan, maila bakarra zegoenean, Añorga eta Oiartzun ziren Gipuzkoako emakumeen futboleko Real Madril eta Barça. “Konpetentzia handirik ez zegoen. Denboraldi amaieran Erreginaren Kopa jokatzeako aukera izaten zuten bi talde horiek, eta han jokatzen zutenek Gipuzkoako selekzioarako hautatuak izateko aukera gehiago zituzten. Beste taldeetan pixka bat bereizten ziren jokalariek fitxatzen zituz-

“Neska izanda gogo handia izan behar duzu futboleko jarraitzeko”



nal maila 1993-1994



Erregional maila 2001

FUTBOLARI ASKO

Aitzindariak jarraipena izan dute urte hauetan guztietan. Makina bat neskek jantzi dute Zumaia koren kamiseta gorria.



ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

Casa BASUSTA

CASA
BASUSTA
LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,
Lore-zentruak, Koroak,
Landare naturalak eta artifizialak,
Zeramika-lanak eta zumezko saskiak

Etxez etxeko zerbitzua

Santiago auzoa, 18 TEL: 943 862611



“Neska batek mutil batek adina sufritzen du zelaian”

Nekez pentsatuko zuen 44 urteko zumaia honek bizitzako 21 urte emango zizkiola Zumaia-ko. Emakumezkoen taldea berpizteko bilera bat zegoela jakin eta gero sartu zen klubeko engranaje. Urte horietan guztietan hainbat taldetako entrenatzailea izana, emakumezko futbolari eman dizkio urte gehienak, eta ez du baztertzen berriro neskak entrenatzea. “Esperientzia ona izan zen eta gustatuko litzaidake itzultzea”.

Noiz sartu zinen Zumaia-ko?

1991n, emakumezkoen taldea berriro ateratzea erabaki zuten. Urteak neramatzan eskolako partiduak epaitzen, eta emakumezkoen kirolarekin kolaboratzeko aukera sortu zitzaizkidan, berehala hartu nuen. Ikusten nuen emakumeentzako ez zegoela ezer Zumaian, eskubaloia izan ezik. Bilera batera joan nintzen, entrenatzailea izango zen Paco Morarekin hitz egin nuen eta taldeko ordezkari postua eman zidaten. Bizpahiru urte egon nintzen berrekin, eta 1994an entrenatzaile titulua atera eta gero, taldearen gidaritza hartu nuen. Urte dezente egin nituen talde harekin, baita neska kadeteekin ere. Gehienbat emakumezkoen taldeekin egin dut lan, orain hiru urte arte. Urte hartan alebiren taldea hartu nuen eta azken bietan jubentia nabil.

Neskek eta mutilak entrenatu dituzu. Zer diferentzia aurkitu dituzu?

Neskek talde trinkoagoa eratzen dute. Mutilekin ez da hori gertatzen. Entrenatzen pasa nituen urteetan urtero joaten zitzaizkidan lauzpabost neska, eta beste lauzpabost sartzen ziren haiek ordezkatzeko. Berriak berehala integratzen ziren taldean; multzo trinkoa segituan eratzen zuten.

Teknikoki desberdina al da neskek entrenatzea?

Entrenamenduak berdinak dira mutilekin eta neskekin, baina beste maila batean. Mutil batek 100 metroak 11 segundotan egin ditzake; neska bati ezin zaio hori eskatu. Faktore horiek kontuan hartu behar dira, baina bestela antzerakoak dira. Neska batek mutil batek adina sufritzen du zelaian. Neskek era berean lehiatzen dituzte partiduak. Azken finean, denoi gustatzen zaigu irabaztea.



Mutlenak adina bultzatzen al zituen klubak nesken taldeak?

Uste dut baietz. Beti egon dira neska hauei laguntzen, nahiz eta kanpotik esango duten ezetz. Lehen taldea urtebetez desagertu zenean, azken unea arte egon ziren taldea ateratzeko borrokan, nahiz eta azkenean ezinezkoa izan zen.

“Talde oso politak egon dira, baina gauza batengatik edo bestearengatik, inoiz ez genuen ezer lortu”



Maila handiko futbolari asko atera dira Zumaia-ko, nahiz eta askok ez dakiten hori.

Nire ustetan, lehenago joan behar zuten goiko mailatan jokatzera. Nik izan ditudan neska asko maila goreneko taldeetan jokatzeko gaitasuna bazuten, eta jokalaririk asko Gipuzkoako selekzio-rako hautatuak izateko maila ere bazuten. Baina hori ekiditeko zenbait gestio egin ziren beste talde batzuei. Adibidez, Zarautzera joan arte Izaro Arrona ezin izan zen selekzioa joan. Askok lehenago hautatu behar zuten.

Izan nituen neska askok egin zituzten merezimenduak Gipuzkoako selekzioarekin partidu bat edo bi jokatzeko, baina... Eva Jimenez izan zen Zumaian egon eta selekzioarekin proba egin zuen jokalaririk bakarra. Maila handia zegoen hemen.

Urte hauetan guztietan bizipen asko izango zenuen. Zein dituzu gozoenak?

Lortutako bi trofeoak –2006an Gipuzkoako txapelketa eskolarteko mailan, eta 2006-2007 denboraldian Kopa kadeteekin–. Zumaia-ko zerbait irabazteko gai izan dela erakusten dute. Talde oso politak egon dira; beti egon gara borrokan, baina gauza batengatik edo bestearengatik, azkar kaleratzen gintuztelako edo beste zerbaitengatik, inoiz ez genuen ezer lortu.

BEDUA ITURGINTZA S.L.

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMALEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

Braky's

Okindegia Kafetegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700

EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787

EKAIN

SAGARDO EKIDOLKIOA

www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033

Ekin
elektrizitatea, s.l.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

DIGITAL+

SESMA

ENTRENATZAILE PERTSONALA

Kalitatezko Jarduera Fisikoa eta Kirola

667 750 206
www.entrenadorpersonalesesma.com
josebasesma14@gmail.com

ERNTO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

ERROTA

OPIL OKINDEGIA
SANTXO AUZOA, 32
20750 ZUMAIA
TEL: 943860000
943860612
FAX: 943860977
errota@errot-okindegia.com

ERTZ INFORMATIKA

Portatilak
konpontzeko
zerbitzu berria

Eskeatu aurrekontua
konpromisorik gabe.

DOAN

Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

FARMA ZUMAIA

Parafarmazia • Belar-denda

Tel. 943 865 323

PRODUKTUAK

- Ume eta haurrentzat, dietetikoak, kosmetikak, hanka eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dieta, Naturapata, Indologia, Flores de Bach, Masajeak (Terapeutikoak, Kirolentzako, Lesatzeak, Esnearen, Arduratsuen, Buroi minen, Zirkulazio arazoentzako kontrakoak), Akupuntura, hornatzeekin eta hornatzak gabe

BASADI KALEA, 3 - BEHEA - ZUMAIA

GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA

Era guztietako instalazioak etxebizitzara, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide pasealekua, 5. pabilioia tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617

Galdona

burdindegia

Mondano marnela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057

Garoa

kafetegia

Txomin Agirre kaia Tel. 943862181

ten, gainera”, dio Evak. Liga nazionala sortu eta bi talde horiek mailan gora egin zutenean, erregional mailan goiko postuetan aritzeko aukerak zabaldu zitzaizkien beste talde askori. Horren erakusgarri da 1993-1994 denboraldian, mailako txapeldun izateko borrokan izan zela Zumaiaiko. **(Itziar):** “Izaro Arrona, Zumei eta gazte hauek denak sartu zirenean, oso talde ona osatu genuen. Gazteek teknika zekarten; guk indarra eta gogoia”. **(Eva):** “Oraingo jokalariek teknikoki gu baino askoz hobeak dira. Ai, halako jokalariek izan bagenitu gure garaian!”. Azken unea arte borrokatu zuen Zumaia-kok mailako txapeldun izateko, baina, Fernando Alejandre entrenatzaile ohiak gogoratzen duenez, “etxean jasotako zoritxarreko gol baten ondoren aukera guztiak galdu genituen”. **(Itziar):** “Haren ondoren jendea taldea uzten joan zen. Kolpe oso gogorra izan zen”.

Taldea utzitako jokalarien hutsunea atzetik zetozen gazteek bete zuten, eta urte askotan goiko postuetan aritzeko gai izan ziren, betiere igoeratik hurbil, baina helburua inoiz lortu gabe. Garaiko zuzendaritzaren partetik bultzada baten beharra sumatzen zuten. “Garai batean Zumaiaiko oso konformista izan zen. Maila jakin batean zegoen eta ez zuen igoerarako borroka egiteko beharrik ikusten. Hori ikusita jokalariek beste taldeetara joaten ziren”, dio Evak.

Hala ere, edozeini irabazteko gai ziren zumaiaarrak. **(Eva):** “Hasi zenean, Realak gure taldean jokatu zuen, zerotik hasi behar izan zuen eta”. **(Rosa):** “Oso ondo jokatu genuen haien aurka”. **(Eva):** “Nola ondo? 0-3 irabazi genuen Zubietan. Talde guztiak hutsen uzten zituzten eta gu joan eta irabazi egin genien. Zoriondu ere egin gintuzten. Zubietatik pasa zen talde onena izan omen ginen”.

Talde polita zegoela ikusita, aurrerapauso bat emateko garaia zela antzeman zuten klubean. “Kanpoan zeuden jokalariek ekarri nahi izan genituen Liga Nazionalerako igoeran borrokatzeko. Alde horretatik, Zumaia-kok apustua egin zuen talde lehiakorra eratzeko. Lagun Onakekin ia denboraldi amaiera arte borrokan aritu ginen, baina haiekin etxean 0-3 galdu eta gero aukera guztiak galdu genituen. Ez ginen igo, baina jokalariek ez ziren denboraldi amaieran joan. Eskatu genien beste urtebetez jarraitzeko, gazteagoak trebatzeko”, azaldu du Evak.

Denboraldi gehiagotan ere izan da Zumaiaiko igoerako borrokan. **(Rosa):** “Igotzeko asmoa beti egon da. Hemen jokatu ditudan ia urte guztietan izan dugu igotzeko helburua, baina ez genuen inoiz lortu. Beti igoera jokatzen ibili eta inoiz ezer ira-

bazi ez, nekatu egin ginen. Urte batean kopan aritu ginen, hura irabaziko genuelakoan..., ba, ez, ez genuen irabazi!”. Barrez hasi dira berriro bostak.

Emakumeen futbola sendotzeko araudi eta maila berriak sortu zituen Federazioak. Lehen adin tarte guztietako emakumeek maila berean jokatzen zuten.

2001. urtean kadete mailako futbol 8ko liga sortu zen, 14 eta 16 urte bitarteko jokalarientzat. Gazte horiek maila goreneko taldean jokatzeo aukera ere bazuten. **(Eva):** “Garai hartan Zumaia-kok bakarrik zituen F8 eta F11ko taldeak”.

Poliki-poliki gauzak aldatzen bazihoazen ere, kirolen artean desberdintasunak zeudela nabarmentzen dute. **(Eva):** “Futboleko jokatzeo 14 urte izan behar zenituen, baina eskubaloian 12 urterekin has

zintezkeen. Hori ikusita, neska asko eskubaloian hasten ziren, eta behin hasita oso zaila da kirolez aldatzea. Futboleko jokatzeo gogo handia izan behar zenuen bi urtez zain egote-

ko”. **(Rosa):** “12 urte nituenean, eskubaloitik behin eta berriro deitu zidaten. Baina nik futboleko jokatu nahi nuen eta adina izan arte zain egon nintzen”.

Krisia, baina, 2007. denboraldian etorri zen. Urte horretan araudi berria prestatu zuen Federazioak. Denboraldi horretatik aurrera hiru maila

izango ziren: infantil mailan, F8ko taldea; kadete mailan, F11koa, eta senior mailakoa. Azken horretan, gainera, kadete mailako jokalariek kopuru txiki batek izango zuen jokatzeo aukera.

Gaia gogoratzearekin bakarrik berotu egiten da Eva. “Ondo dago lehia erregulatu nahi hori, baina eskua joan egin zitzairen. Mailak erabakitzerakoan mutilen ezaugarriak hartu zituzten kontuan, ez neskenak. 16 urterekin neska bat eginda dago; mutil bat ez. Arazoa izan daiteke 12 urteko neska batek ez lukeela jokatu behar 20 urteko baten kontra. Erabaki hark talde handiei egin zien mesede: Realari, Añorgari, Zarautzi... Gipuzkoako klub asko senior mailako taldea ateratzeko gai ez ziren izan. Handiak haiengana joan ziren jokalarien bila”.

Erabaki horrek kalte handiak ekarri zizkien klub askori, Zumaia-kori barne. Belaunaldi aldaketa baten erdian harrapatu zuen araudi aldaketak. Senior mailako 6-7 jokalariek besterik ez zituen; beste guztiak kadeteak ziren. Behar adina jokalariek ez zuten, senior mailako emakumezko talderik ez zuen izan Zumaia-kok 2007-2008 denboraldian. **(Eva):** “Zuzendaritzak ez zuen erreflexurik izan. Emakumeen talderako jokalarien bila joate-



Zumaiaiko maila handiko jokalarien harrobia izan da. Hizlari ditugunez gain, jokalariek asko aritu dira futboleko Zumaia-tik kanpo





**MARIA
LOPEZ**

10 urte
futbolean

“Gu saiatu ginen taldea osatzen, baina nori galdetzen diozu? Koadrilakoengana ez nintzen joango esatera futbolean hasteko”



**EVA
ROMATET**

14 urte
futbolean

“Zumaian oso jende ona egon da, beste klub askotakoak baino hobeak, baina inor ez dute eraman selekzioa, Zarautzen jokatzeko ez zutelako”



**ZUMEI
BILBAO**

20 urte
futbolean

“Futbolean belaunak puskatu ditut, baina tabernan lana egingo ez banu, baloiari ostikadak ematen jarraituko nuke”



**ITZIAR
BERISTAIN**

12 urte
futbolean

“Izaro Arrona, Zumei eta gazte hauek guztiak sartu zirenean, oso talde ona osatu genuen. Gazteek teknika zekarten; guk indarra eta gogoia”



**ROSA
RUIZ**

11 urte
futbolean

“Beti igoera jokatzeko ibili eta inoiz ezer irabazi ez, nekatu egin ginen. Urte batean kopan aritu ginen, hura irabaziko genuelakoan..., ba, ez, ez genuen irabazi!”

Kabi tabernan jarri dugu elkarriketarako hitzordua eta, Keparen baimenarekin, bertan atera ditugu orri hauek osatzen dituzten argazkiak. Ez daude ohituta kamera aurrean posatzera eta modelo lanak egitera. Urduri hasieran, bostak lasaitzen doaz eta azkenean barrez hasi dira, bata bestea animatzen. Beste behin ere agerian geratu da beraien artean harreman estua dagoela.



Ospakizunak

25. urteurren honen harira, zenbait ospakizun pres-tatze ari dira Zumaikoko kideak. Apirilean hasi eta urria bitartean hainbat futbol partidu jokatu dira. “Emakumezkoen maila guztietako –erregionala, kadetea, bi infantilak eta teknifikazio eskola– taldeekin partiduak antola-tzeko asmoa dugu. Gauzak erabat lotzeko daude, baina ziur aski eskualdeko taldeak ekarriko ditugu, eta posible ez bada Euskal Herriko beste herrialde batzuetakoak”, dio Fernando Alejandrek. Partiduak apirilean hasi eta ekainera bitartean jokatu dira, eta



udako oporren ondoren, irailean eta urrian ere bai. Zu-maiara ekarriko dituzten taldeetako bat Orioko izango dela ziurtatuta dute. “Emakumezkoen taldeak jokatu zuen lehen partidua Oriokoren aurka izan zen”.

Urteurreneko logotipo lehiaketa antolatze-ko asmoa ere badute. “Gure ideia da herriko eskoletako haurren artean egitea lehiaketa. Aurkeztutako lan guztiak Zumaia-ko areto batean erakutsiko ditugu, eta irabazten duen logoa pegatinak, kamisetak, txapelak edo beste gauza batzuetarako erabiliko dugu”.

Futbole berdintasuna? Ezinezkoa

Gero eta gehiago gara kirola praktikatzeko dugun emakumeak, baina egiari zor, oraindik ere, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzeki oso urrun gaude. Kasu askotan, gainera, berdintasun horren alde lan egin arren, ezinezkoa da hori lortzea. Futbole, esaterako, badago emakumezkoen liga nagusi bat estatuan mailan. Lehen “Superliga” izenarekin ezagutzen zen; orain, berriz, “Emakumezkoen 1. maila” bezala ezagutzen da. Teorian, gizonezkoen 1. mailaren parekoa da, baina praktikan ez daukate zerikusik.

Hasteko, hemen, emakumezko batek ezin du lizentzia profesionalik izan. Legeak ez du horretarako aukerarik ematen eta kasu honetan, Espainiako futbol federazioak ez du halakorik onartzen, nahiz eta Europa mailan emakumezkoen liga profesionalez inguraturuta bizi. Etiketarik urrunduta ez bada, une hauetan, emakumezko batek ezin du futbolari moduan bere bizimodua aurrera ateratu. Ezin du, futboletik bizi-tzearen ametsa gauzatu. Berdin du gizonezkoek baino arduratsu eta diziplina gehiago erakustea, berdin du futbolean jokatzeko pasioa baldin badu. Berdin du. Azkenean pasio hori frustrazio bihurtzen da. Gustatzen zaizun hori praktikatzeko aurrera egin ezinaz sortzen duen frustrazioa. Futbolaren ‘1. mailan’ aritu eta 2.B mailan jokatzeko duen gizonezko batekin alderatuta zentimorik ez irabazteak sortzen duen ezinegona. Egoera aldatu egiten da Ingalaterran, Suedian, Alemanian, Frantzia eta batez ere, Estatu Batuetan. Emakumezko futbolariak askoren idoloak dira bertan.

Pasa den urtean Alemanian jokatu zuten emakumezkoen munduko txapelketan milaka eta milaka ziren partidak ikustera joan eta estadioak betetzen zituzten zaleak. Berlingo kaleetatik joan eta kirol marka nagusien iragarkietan emakume futbolarien argazkiak ikustea zen ohikoena. Hori gurean utopia hutsa da. Munduan zehar telebista bitartez 18 milioi ikusle izan zituen mundialak, sekulako arrakasta. Baina gutako zenbatek ezagutzen dituzte Birgit Prinz, Michelle Akers, Veronique Voquete edota Marta Vieira da Silva? Hain urrutira joan gabe, gutako zenbat da gai Athletic, Real eta Lagunak taldeetako hiruna jokalaririk esateko?

Honen guztiaren inguruan hedabideek ere zeresan handia dute. Emakumea eta kirola uztartzen dituen albiste askoren oinarrian matxismoa ezkutatu da. Bateko, gona motzarekin edota neurria egokitutako arroparekin jokatu beharko luketela. Besteak, egutegi bat egiteko biluztu egin direla. Horixe da sarri emakumez-



koen kirolari lotuta entzun, ikusi edo irakurtzen duguna. Al-Japonia da egungo munduko txapelduna.

Hala ere, hau guztia ikusita, gero eta neskak gehiago dira futbolean jokatzeko animatzen direnak. Zumaiakon ikusten da hori. Aurten 25 urte betetzen dira emakumezkoen taldea sortu zela. 25 urte gorabeheratsuak izan dira, baina egun emakumezkoen bost talde daude futbol eskola kontuan hartuta.

Ni Zumaiakon futbolean jokatzeko hasi nintzenean, orain dela 15 bat urte, 14 urteko neskalak 25 urtekoekin batera jokatzeko ginen. Ez zegoen adin bereko jokalarien artean jokatzeko aukerarik. Horrek ‘beteranoengandik’ ikasteko aukera ematen zizun, baina ez zen erraza tokia egitea taldean. Egia da, ordea, neskek futbolean jokatzeko mutilek baino lehenago uzten diotela, unibertsitatea dela, lana dela, edota aurretik aipatutako arrazoiengatik emakumezkoen ibilbidea, normalean, laburragoa izaten da.

Gaur egun beheko mailetatik hasten da kluba lanean. 8 eta 11 urte bitarteko neskailekin hasten da harrobia lantzen. Lehiatzen infantiletan hasten dira, gero kadeteetara pasa eta seniorrekin jokatzeko. Horrek urteetan zehar, blokea osatzen joateko aukera ematen du, baina nahikoa da gutxi batzuk futbola utzi eta taldea sortzeko arazoak izatea. Horrela dago emakumezkoen futbola, egonkortasuna lortzeko borrokan etengabe. Hainbeste desio dugun berdintasuna lortzeko helburutik urrun.




GOIKO TABERNA
Erribera, 9 tel. 943 861 391

Ikastegi homologatua

Golden Gate
Institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943 865 020
goldengateinstitute@telefonica.net

Cure-Txokoa
aberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaiak
Tel.: 943 86 09 70

English School

Harvest

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

API

Ibai gain
inmobiliaria

Ricardo Azkue
API 399

Txomin Agirre 4, behea
tel. 943 862 651
faxa 943862748
rjzcue@euskalnet.net

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

IRUITZ



Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

Itzurun, S.L.
Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpatratuak...

Itzurun Zuhaitzibidea, 2 behea
Tel. / Fax: 943 86 15 65

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943 861 853

ORRAZTEGI ZUMAI



943 862 083

Kaia


Pintxoak eta otartekoak



Txomin Agirre kala, 8

KABI Pakila Etxezarreta, 15
943 117 427

TABERNA




Kaittermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari



Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

KANTAU
TABERNA

Pintxoak • Plater Konbinatuak • Kazolatxoak

Kantauri plaza, 4 behe • Tel. 943 575 840

ko ohiturarik ez zuen, eta nora joan ere ez zekiten”. **(Maria):** “Gu saiatu ginen taldea osatzen, baina, nori galdetzen diozu? Koadrilakoengana ez nintzen joango esatera futboleant haste-ko”. Herrian jokatzetik ez, eta Zumaiaiko zenbait jokalarik, Maria barne, Lagun Onakera joan ziren jokatzera. Batzuk nazional mailako taldean aritu ziren, besteak erregionaletan. **(Maria):** “Haiek gustura zeuden erregional mailako jokalarik asko zituztelako, eta gu ere bai, denok batera geundelako”. **(Eva):** “Eta gustura futboleant ari zinetelako. Txanda galtzen baduzu, akabo!”.

Izan ere, Zumaiaiko maila handiko jokalarien harrobia izan da. Hizlari ditugun bostak Zumaia-
tik kanpo aritu dira futboleant, baina baita Izaro Arrona, Eva Jimenez, Maitane Bilbao, Lorea Zabaleta, Maialen Calleja, eta abar eta abar.

(Zumei): “Zarauztik Zumaia-
ra itzuli nintzenean, urtebetez egon nintzen lesionatuta. Handik denbora batera deitu zidaten Añorgatik. Kanpora joateko gogo handirik ez nuen, baina Añorgara joatea beste gauza bat zen. Guretzat Real Madril baten parekoa zen! Jokalaria izan nintzen han eta txiki-
en entrenatzaile ere bai. Zumaian berriro senior mailako taldea sortu zenean itzuli egin nintzen, Arantxa [del Porte] entrenatzailearekin. Urtebetez bigarren entrenatzaile izan nintzen, eta esperientzia polita izan zen. Baina, nahiago zelaian aritu. Nahiz eta futboleant belaunak puskatu di-
tudan, tabernan lanean arituko ez banintz, han segituko nuke baloia-
ri ostikadak ematen”. **(Eva):** “Rosaren bila bizpahirutan etorri ziren, behin Zarauztik eta pare batean Azpeititik. Bitan hemen jarraitzeko eskatu genion, ez genuelako nahi taldea des-
muntatzea, baina hirugarrenean ezin genion berriz eskatu”. **(Rosa):** “Lorea Zabaleta, Eva eta hirurok joan ginen Azpeitira. Lagun Onak maila bat gorago zegoen, eta Lorea eta ni jokatzera eta Eva entrenatzailearen laguntzaile lanak egitera joan ginen. Zarauztik ere deitu ziguten, baina ez genuen nahi joan hara”.

Zumaian jokalarik onak sortu badira ere, batek ere ez du joku-
tu Gipuzkoako selekzioan Zumaia-
koren kamiseta gorria jantzi-
tzen bitartean. Arantza hori barreneraino sartuta dauka Evak. “Zumaian oso jende ona egon da, beste klub askotakoak baino hobeak, baina inor ez dute eraman selekzio-
ra. Zergatik? Ba, Zarautzen jokatzetik ez zutelako. Sele-
kzio-
ko hautatzaileak, Martija ‘jauna’, aldi berean Zarauzko managerra zen, eta hangoak era-
matzen zituen. Hemengo jokalariei esaten zien selekzioan aritu nahi bazuten Zarautzen jokatu beharko zutela. Txantaje emo-
zionala egiten zuen”.

Urtebetez senior mailako talderik izan gabe (beste maile-
takoek jarraitu zuten), 2008. urtean hirugarren etapa bati ekin-
zioten. Igoera lortu nahian, Añorga taldearen entrenatzaile-
izandako Arantxa del Porte ekarri zuten. Lagun Onakera joan-
dako sei futbolari ere itzuli ziren. Helburua hurbil izan zuten,
baina ihes egin zien beste behin ere.

(Maria): “Oso ondo ibili ginen, eta ia lortu genuen igoera. Oso talde po-
lita genuen urte hartan, oso gaztea, eta azken unea arte ibili ginen borro-
kan”. Gaur egun, Maria-
k futboleant jokatzetik jarraitzen du Zumaia-
kon. “Oso talde gaztea dugu. Pentsa, 23 urterekin ni naiz zaharrena! Aurten ere txapeldunen faserako sailkatu gara, baina talde oso gogor-
rak ditugu aurkari, eta...”. Irribarre batekin ez du esaldia amaitzen. Denboraldi

honetan ere ez da igoerarik izango. Badirudi emaku-
mezkoren Zumaia-
koren madarikazio hori hau-
tsi ezina dela.

Urteekin talde-
aren jarraitzaile ko-
purua areagotu dela gaineratu dute. **(Maria):**

“Jende dezente etortzen da gure partiduetara. Alde horretatik, aldake-
ta handia sumatu dut. Familiakoez gain, batzuk larunbatero joaten dira talde animatzera”. Zer ikusi gutxi du honek aitzindari-
ek bizi behar izan zutenarekin. **(Eva):** “Mutilen parti-
du bat beti izango da neskena baino

ikusgarriagoa. Mutilek beste potentzia bat dute, beste er-
ritmo bat”. **(Itziar):** “Partiduak ikustera joaten bazara, azkenean en-
gantzatu egingo zara. Baina, onartu behar da aspergarria izan daitekeela ikuslearentzat”.

Urtean poderioz egoera hobetu bada ere, zer egin daiteke emakumezkoen kirola behingoz sendotzeko? **(Eva):** “Nik uste eskolako kirole-
tik hasi behar dela lanean. Gurasoek ez lieke-
te oztoporik jarri behar futbola gustatzen zaie-
n neskei. Normaltasunetik urruti dago oraindik. Hori bai, Athletic eta Real-
a egoteak fabore handia egin dio: behintzat Gaur Egunen haien emaitzen berri ematen dute”.

Ordu eta erdiz hizketan egonda, agerian geratu da elkarta-
sun berezia dagoela beraie-
n artean, belaunaldi desberdinekoak izanda ere. Futbolak elkar-
tu ditu. **(Itziar):** “Niri futbolak lagun pila bat ekarri dit”. **(Maria):** “Asko ikasi dut”. **(Eva):** “Minori-
tarioa izateak agian faborea egin digu harremanak estutzeko”. **(Rosa):** Karmelok [Larburuk, entrenatzaile izan-
ak] zioen oso desberdina dela neska-
k edo mutilak entrenatzea. Guk, agian, sentimendu handi-
agoarekin jokatzetik dugula”. **(Eva):** “Onera-
ko edo txarrerako, desberdina-
k gara”. ■



“Lehengusuekin futboleant aritzetik edo Kofradian baloiei ostikadak ematetik serio entrenatzera pauso handia zegoen”



Kresala
Taberna
Julio beobide 3, tel. 943 019 869



kuttur
lentzeria
erribera kalea tel. 943117936



malaur



MAITE
ILEAPAINDEGIA
Amaiako plaza, 2 tel. 943 143 278



Maluta
jatetxea • taberna
oilasko erreka • kaxuelitak • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224



CROISSANTERIA
pizzak
hanburgesak
bokatak...
marina
Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



Maxi
solarium
ileapaindegia
estetika
etxezarreta, 9 tel. 943 861 021 lasonet.com/maxi

✓ Eguneko menua.
✓ Asteburuetan txotx,
sagardotegiko giroan.



muniosoro
Taberna - Jatebxa
Muniosoro, 54
OIKIA
tel.: 943147891



Nikol Enea
TABERNA
Amaiako plaza



MENDI - ONDO C.B.
Elektrizitatea
Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



METRO
taberna
ogitartekoak
pintxoak
Upela plaza, 7
tel: 943 537 901



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK
Etengabeko garabi zerbitzua
Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com
Itziar industrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com
www.carroceriasnoia.com
638 887 812 (Zumaia)
609 834 438 (Itziar-Deba)

"Muagi"
errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia
RPS: 034/97 Alta Mari, 3. blokea tel. 943 861 691



ETXEGINTZA
OLIDEN
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.
Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak:
FATXADAK ETA TEILATUAK
Sukaldeak, bainugelak...
Tel. 647 040 156 / 686 911 257



OSA
BERNIZATUAK
Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea
Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

EUSKARAREN ARGI-ILUNAK MAHAI GAINEAN

Euskarak gaur egun bizi duen egoeraz mintzatu ziren Belen Uranga, Jon Maia, Markel Peñalba eta Josu Waliño "Euskara, bestela ez gara" hitzaldi zikloari amaiera jarri zion mahai inguruan. Bakoitzak bere ikuspuntutik, hausnarketa eta ideia oso interesgarriak plazaratu zituzten.

TESTUA: GORKA ZABALETA
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA



Hitzaldiaren izenburua *Eta Zumaian, bagara?* izanik ere, lau hizlarien arteko solasaldia ur handiagotan murgildu zen, euskarak oro har dituen arazo, zailtasun eta ezintasunen inguruan. Lauren artean, argi-ilunez jositako erretratua marraztu zuten.

Mundu globalean, gero eta txikiagoak

Jon Maia: “Erreferentzialtasun falta da euskal kulturak duen arazorik handiena. Zenbat eta bizimodu globalagoa, orduan eta txikiagoak bihurtzen gara. Gu umeak ginela ez zen mundu global hau existitzen, eta inguru hurbilak zeukan erreferentzialtasun guztia; unibertso hurbil hori euskaraz zen eta euskalduna zen.

Urteek aurrera egin ahala, nik ikusi dut hori dena txikiagotzen. Gure existentzia agertzeko erakusleho nahikorik ez daukagu. Daukagu hiruzpalau irratik txiki beste 200 irratiren artean; daukagu egunkari bat, astelehenetan ateratzen ez dena, beste 60 egunkariaren artean; daukagu telebista kanal bat % 1,6ko audientziarekin, beste 200 kanalen artean; daukagu webgune batzuk, blog batzuk, milaka eta milaka artean. Nik horri, antidoto modura, kontrajarriko nioke inguru hurbila lantzea, unibertso hurbil horretan nagusi izatea. Hori da eskura daukaguna. Herri mailan, eskualde mailan, nazio mailan indartsuago bihurtzea, gure jarduerekin, gure elkarrekin, gure dinamikarekin”.

Markel Peñalba: “Euskadi Gaztea baldin bada gehien entzuten den irratia, hamabost abestitik bat izango da agian

euskaraz. Iruditzen zait sorkuntza badagoela, ikusi besterik ez dago Zumaian bertan egiten den kultur eskaintza, baina gizartera iristeko erakusleho horiek falta zaizkigu. Eta horretarako eredu euskaldun jator batzuk sustatu behar dira komunikabideetan”.

Josu Waliño: “Ba, nik uste dut gaur egun oso erakusleho indartsua daukagula guk, beste edozein hizkuntzak daukana: Internet. Duela hamabost urte gutako inork amestuko ez lukeen aukera ematen ditu Internetek. Edozein kultur produkzio eta euskara bera mundura zabaltzeko aukera ematen du. Beste kontua da edukiaren kalitatea. Euskaraz izateagatik kontsumitu behar dugu edo kalitatezkoa delako kontsumitu behar dugu? Gai izan beharko genuke kultur produkzioa euskaraz egiteko, modu global batean: kontsumitzaileari eskatzen duena eman behar diogu. Eta hori kosta egiten zaigu egitea”.

Belen Uranga: “Egia da ingelesaren eta gaztelaniaren aurrean txikiagoak garela, baina uste dut badela garaia egiten dugunari balioa emateko. Jakin behar dugu eraldatzen eta egokitzen”.

Jon Maia: “Ez gaude berdintasun egoeran gure lurrean bertan. Hori da gure arazo nagusia”



▼ PUBLIKOAREN PARTE-HARTZEA

Hitzaldi zikloak jakinmina piztu du zumaierren artean.



▲ ZUMAIARAKO PROPOSAMENAK

Zumaiarako bi proposamen zehatz plazaratu ziren mahai inguruan. Jon Maia espazio fisiko bat eskatu zuen, kafe antzoki bat edo, euskarazko kultura dinamizatzeko topaleku bat. Markel Peñalba, herriko kultur elkarte guztiak batu eta koordinatuko dituen kultur mahai bat.

Jon Maia: “Txiki izateak eraman gaitu kalitate maila oso altura. Bizi beharrak eraman gaitu besteek baino gauza hobek egitera. Egia da euskaraz izateagatik inork ez duela obligaziorik izan behar ezer kontsumitzeko. Gertatzen dena da ez gaudela berdintasun egoeran gure lurrian bertan. Hori da gure arazo nagusia. Gure umeek astero erdarazko pelikulak ikusi behar dituzte zinemari; erdarazko DVDak erosi behar dituzte; zure umeak nahi du Disney, eta dena erdaraz dago. Ulertezina litzateke beste edozein naziotan, adibidez, Frantzia, ez egotea Nintendo DS frantsesez.

Prestigio komertziala eta merketin brutala duten produktu guztiak ez dira existitzen euskaraz. Eta umetatik datoz erdararen erakargarritasuneko unibertso horretan hazten. Globaletik datorren gehiena ez dago gure hizkuntzan, ez dugu berdintasunean jokatzeko. Hori da gure anormaltasuna eta hor lehian behar dugu besteekin. Gure musika talde batek lan bat ateratzen duenean, non ematen da albistea? Periodiko batean? Bitan? Telebista kate batean, zorte handiarekin? Total, 6.000 lagunek ikusten dute *Gaur Egun*”.

Josu Waliño: “Kultur produkzioaren merkatuan masa kritikoaren arazoa daukagu. Hau da, euskal komunitatea oso txikia dela, eta euskarazko produktuak kontsumitzen dutenen multzoa ere txikiagoa. Nintendok bere produktuak katalanez ere ez ditu argitaratzen, eta askoz merkatu zabalagoa da Kataluniakoa. Joko guztiak ez dituzte gaztelaniara itzultzen, eta hor merkatu global bat daukate; eta, gainera, jokariari ez zaio batere inporta hizkuntza. Haurrek jolastu nahi dute. Berdin zaie jokoa japonieraz badago ere. Hizkuntzaren garrantzia merkatu horretan oso txikia da. Horren aurrean, geuk egitea pentsa dezakegu: badakigu egiten eta gainera kalitatezkoa. Baina masa kritikoaren arazoarekin egiten dugu topo. Kostuak handiegiak dira lortuko den etekinerako. Gure

produktuen kalitatea izugarria da, baina errealitate hori bizi dugu”.

Markel Peñalba: “Internetek guretzat potentzial handia du, baina uste dut ez dela benetan iristen gizartera, edo, behintzat, eremu jakin batera mugatzen dela. *Baleike* jakin duen bezala Zumaiako eremu zabal bat harrapatzen, lortu behar dugu produktu horiek Internet bidez eremu handiagotara zabaltzen. Nola? Gazteen ikuspegitik sare sozialak oso garrantzitsuak dira, baina garrantzitsuena iruditzen zait herri egituraketa hori. *Baleike* herri mugimendu batetik sortutako produktua da, eta horrek ekarri du herriak kontsumitzea. Herri mugimendua ondo antolatu eta koordinatzea da benetan garrantzitsua, hor sorkuntza potentia egotea eta herri mugimendutik transmisioa egitea gizarte osora. Internet bidez egin dezakegu, baina transmisioak partaidetzazkoa izan behar du. Gaur egungo gazteak bertako

kultur produkzioan parte hartzen badu, orduan kontsumituko du hori ere, eta ez kanpoko bakarrik”.

Euskararen egoera

Jon Maia: “Zumaia oasis bat da Euskal Herrian. Euskaldunen % 85 ez da bizi Zumaia bezalako herrietan. Zenbat belaunaldi ari gara, bata bestearen atzetik, euskarazko hezkuntzatik pasatzen, Gasteizen, Irunen, Iruñean Eskolatik ateratzen diren bezain pronto amildegira doaz, milaka eta milaka. Ez daukate euskal unibertsorik. Euskara ez da existitzen beraientzat. Euskara da ikasgai bat, marroi bat, eskolako hizkuntza bat.

Eskolatik parkera irteten direnean, ez dago euskararik. Beraien mundu imajinarioan euskara ez da existitzen. Ez gara gai izan euskarazko unibertsoa eraikitzeko eta belaunaldi horiek galdu egin dira. Hori da errealitatea. Nola ematen diozu

Markel Peñalba:
“Atmosfera
euskaldun bat
behar da. Gazteari
erakutsi egin
behar zaio zer den
euskaldun izatea”



OSKARBI KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arrantz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.
Joxe Mari Korta Industriegunea, A1 - 4. pat. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostola@ostolaza.com

Ostolaza Altzariak

Julio Beobide ibiltoia, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolazaleuskalnet.net Tel./Faxa: 943 86 13 25

OTEZURI KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401



Alta Mari, 17, beheha
tel. 943 247 011

Rosi

Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353



PINTURAK,
ARTE EDERRAK,
ALFONBRAK,
DROGERIA,
PINTATURIKO PAPERAK,
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788
Erribera 1 beheha



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370



TALAI-PE

jatetxea-erretegia

Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan
Julio Beobide ibiltoia Tel. 943861392

Tapaia

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3
tel. 943 865 289

TXIMISTA

garagardotegia

Ogitartekook
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (kodiilloa)
Saltxitak, oilaskoak...
Garagardak aukeran

Ondartza plaza, 4 beheha Tel. 943 573 905

TXORTENA JATETXEA

Eguneko menua, Asteburukoa,
Parrilla, Wifi gunea,
Plater konbinatuak,
Kazueltak, Errazioak
Oikiako plaza 24.
Tel. 943 865 315
OIKIA



Loradenda Lorazaintza
erribera, 1 tel. 943 860 778
tel. 943 861 180 655 703 343
Nekazaritza Injeneru Teknikoak



PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberría Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

Urola 2000, s.l.

Aroztegia

*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
*Baserrien zaharberritzea
*Enbarkazio konponketa
*Ate, zokalo, tarima eta pertsiak
*Armairu enpatratuen aurreidea
*Aroztegi metalikoa

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323



Xanti Osa
Arantxa Azkue

Amalako plaza, 13
tel. 943 860 914
657 794 153
Denda: tel./faxa 943 862 385



• plater konbinatuak
• ogitartekook
• oilasko erreak

Urola Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA



Jon MAIA

Bertsolaria, idazlea eta kultur eragilea

“Zenbat eta bizimodu globalagoa, orduan eta txikiagoak bihurtzen gara”

“Erreferentzia hurbilenetan bihurtu behar dugu indartsu”

“Zumaia oasis bat da, baina euskararen egoera oso bestelakoa da eta soluzio estrukturalak behar ditu”

“Posible al da euskaren normalizazioa euskal estatutik gabe? Bitartean honela segi beharko dugu, asmatzen aurrera nola egin”

Josu WALIÑO

Idazlea, Elhuyarko Berrikuntza eta Proiektuen zuzendaria eta Baleikeko kidea

“Duela hamabost urte gutako inork amestuko ez lukeen aukera ematen ditu Internetek”

“Euskaraz izateagatik kontsumitu behar dugu edo kalitatezkoa delako kontsumitu behar dugu?”

“Kultur produkzioaren merkatuan masa kritikoaren arazoa daukagu”

“Euskara gure eremu profesionala ere izan daitekeela ulertu behar dugu”



Markel PEÑALBA

Bertso irakaslea, ingeniartza ikaslea eta ZUGAko kidea

“Sorkuntza badago, baina gizartera iristeko erakuslehoak falta zaizkigu”

“Herri mugimendua ondo antolatu eta koordinatzea da benetan garrantzitsua”

“Gazteak, bertako kultur produkzioan parte hartzen badu, orduan kontsumituko du hori ere”

“Euskarak ez die balio beraien harreman intimoetan, txiste bat egiteko, sentimenduak adierazteko, maitatzeko, eredurik ez dutelako”

Belen URANGA

Soziolinguistika Klusterko teknikaria eta hizkuntza aniztasunaren ikerlaria

“Jakin behar dugu eraldatzen eta egokitzen”

“Adituek pentsatu zuten eskolak euskaldunduko zuela gizartea, baina horrekin bakarrik ez da nahikoa”

“Hizkuntza da gizakiaren elementu funtsezkoa, baina badauka borondatearekin zerikusia”

“Ni oso triste jartzen naiz hain balorazio ezkorrak egiten ditugunean eskoletan euskaratutako belaunaldien inguruan, egiten den ahalegina baloratzekoa delako”.



buelta? Pentsaezina da Italian egotea 48 irrtati kanal ez dutenak hitzik esaten italieraz. Nola ez dago kuporik irrtati guztiek erdia euskaraz emiti dezaten? Nola ez da estreinatzen pelikularik euskaraz? Zumaia oasis bat da, baina euskararen egoera oso bestelakoa da eta soluzio estrukturalak behar ditu”.

Belen Uranga: “Adituek pentsatu zuten eskolak euskaldunduko zuela gizartea, baina horrekin bakarrik ez da nahikoa. Zenbait esparrutan euskararen presentzia ziurtatuta egon dadin tresna jarri behar dira. Horren errebindikazioa etengabe egin behar da. Baina ez nuke esango belaunaldi horiek galdu direnik. Izugarri lan handia egin da alde horretatik. Guraso askok eta askok erabaki dute seme-alabek euskaraz ikas dezaten. Eta ez da konparablea Italia Euskal Herriarekin, eta ez dut uste izango denik.

Beste aldagai batzuk daude hor, hizkuntzaren alderdi intimoenarekin zerikusia dutenak. Orain arte pentsatu da eskola, ofizialtasuna, literatura, kultura eta beste hainbat tresna martxan jarrita nahikoa izango zela. Funtzionatzen du, baina maila batera arte. Baina alderdi psikologikoak, antropologikoak ere garrantzia handia du, eta oraindik ez dakigu oso ondo nola funtzionatzen duen.

Demagun Gasteizen euskaraz ikasi duen horrek kalera irten eta euskarazko unibertso hori aurkitzen duela. Nola ziurtatuko dugu euskararekiko guk amesten dugun sentimendu hori izango duela? Ez da posible. Ezin da aurreikusi. Kontrolatzen ez ditugun osagai batzuk daude. Hizkuntza da gizakiaren elementu funtsezkoa, baina badauka borondatearekin zerikusia.

Ni oso triste jartzen naiz hain balorazio ezkorrak egiten ditugunean eskoletan euskaratutako belaunaldien inguruan, egiten den ahalegina baloratzekoa delako. Eta begiratu beharko genuke euskaldun petoek zer nolako bilakaera ari garen egiten. Euskaldun zaharrok egiten ditugu beste hautu batzuk ere, gaztelaniaren, ingelesaren edo alemanaren aurrean. Euskarari bilatu behar zaizkio nagusi izango den esparruak, baina kontuz ibili iristen ez garen lekuekin”.

Jon Maia: “Nik ez nuke ezkorra izan nahi, baina euskararen inguruan askotan ikusten dut beste zorion faltsu bat. Euskara hiltzori dago. Zer esanik ez Iparraldean. Hiltzori. Koma sakonean. Nafarroan ez da hizkuntza ofiziala. Koma sakona. Hiri handietako periferietan... Gurasoek D eredura bidaltzen dituzte umeak, debalde delako, eskola publikoa delako. Egoera oso larria da. Zertan jartzen ditugu lehentasunak politika egitean, legeak egitean. Alderdi intimoari garrantzirik kendu gabe, arazo batzuk hain dira estrukturalak erantzun estrukturalak behar dituzte. Palanka handiak beharko dira egoera horiek iraultzeko, eta guk sortu beharko ditugu inertzia batzuk. Hasieran, gutxi batzuk izango dira gehituko direnak, baina poliki-poliki normaltasunez hartuko dira euskararekin bizi beharreko esparru horiek”.

Markel Peñalba: “Nire ikaskide askok gutxienez 22 ur-

tez ikasi dute euskaraz, eta eskola eremutik kanpo sekula ez dute erabili euskara. Niri gertatu zait, unibertsitateko bigarren mailan, euskarazko D ereduari, ikasleak galdera gaztelaniaz egin eta irakasleak gaztelaniaz erantzutea. Lan izugarria egin dela, guztiz ados, baina zerbaitetan huts egin dugu, eskolatik kanpo inork ez baitu erabiltzen. Bizitza guztian etxean eta koadrilan euskaraz egin duen jendea iristen da unibertsitate eta joera orokorra da gaztelanian murgiltzekoa”.

Aurrera begira

Belen Uranga: “Une berezi batean gaude, ‘estrategien ilunaldi batean’ esaten du Jon Sarasuak. Badago egonezin bat, bagoazen edo ez. Euskara teknikarien artean, komunikazio arloan, hezkuntzan, lan munduan... Esparru guztietan sumatzen da kezka, gauzak ondo egiten ari ote garen. Euskal hiztun komunitatearen inguruko hausnarketari dagokionez, planteatzen dena da estrategia berri batzuk definitu behar direla, aurrekoak jadanik ez digula balio. Eta beste erronka da nola egin behar da eskolan euskara ikasitako jende hori guztia euskaldun oso bihurtzeko. Eta hor ezjakintasun handia daukagu, jarreraren inguruan... Zilegi al da denek motibazio berberak eskatzea?”.

Markel Peñalba: “Atmosfera euskaldun bat behar da, mundu euskaldun bat. Gazteari erakutsi behar zaio zer den euskaldun izatea. Zergatik dagoen euskara dagoen bezala, zer pasatu dugun honaino iristeko. Baina horrekin batera, badago beste arazo bat: euskarak ez die balio beraien eguneroko harremanetarako, hartu dute eskolako hizkuntza bezala, gai dira azterketak euskaraz gaintzeko, baina kalera iristen direnean eta lagunartean beraien sentimenduak azaldu behar dituztenean, beraien harreman intimoetan, euskarak ez die balio. Ez die balio maitatzeko eta maitatuak izateko, ez die balio txiste bat kontatzeko. Jaso duten hizkuntza ez delako batere naturala. Ez die balio, besteak beste, ez dutelako eredurik. Hori niri ere gertatzen zait. Lagunartean gaudenean, koletillak eta grazia egiten duten esaldi guztiak erdaldunak dira, ereduak erdaldunak direlako”.

Jon Maia: “Guk asumituta daukagu hizkuntza gutxitu gara eta hortik jokatu behar dugula. Ba, gu ez gara hizkuntza gutxitu jaio, gutxitu egin gaituzte. Gutxitu, txikitu, birrindu egin gaituzte. 45 urteko diktatura batean egon gara, non euskalduna zigortua izan zen. Bizirik atera gara, baina oso txikituta. Herri bezala zapaldu gaituzte, baina salbatzeko ez digute herri baliabiderik ematen, autonomiatxo bat baino ez. Horrekin egin behar dugu aurrera 45 urteko zapalkuntzaren ondoren. Hortik gatoz. Legez dagokiguna da birrinduak izan aurreko egoera. Idealena litzateke jendea inertziatik iristea euskarara, ez hautu bat eginda. Posible al da euskaren normalizazioa euskal estatutik gabe? Posible da? Bitartean honela segi beharko dugu, asmatzen aurrera nola egin”.



▲ HITZALDI GUZTIAK INTERNETEN

Hiru hitzaldiak eta mahai ingurua interneten aurkituko dituzu, osorik, www.baleike.com/webgunean.

Markel Peñalba: “Zapalkuntza horretatik bizirik atera gara hemen herri mugimendu bat egon delako eta lan handia egin delako. Estatu bat ezinbestekoa dela iruditzen zait, baina estatu horrek berak bakarrik eramango al gaitu inertziaz euskara nagusitzera? Erabat beharrezkoa da herri mugimendua aktibatuta egotea uneoro. Herritarren parte hartzea ezinbesteko izango da, estatuarekin bakarrik ez da nahikoa”.

Josu Waliño: “Herri mugimenduak beharrezkoak dira, baina ez dut uste herri mugimenduek bakarrik salbatuko dutenik euskara, ez eta estatu bat izan da ere. Adibidez, *Baleike* herri mugimendutik sortu zen, baina aurrera egin du profesionalizazioa jo duelako. Ez dut esan nahi militantismoa txarra denik, baina frankismoaren ondorenak gainditzeko beharrezkoa izan zen txip hori aldatu behar dugu.

Euskara gure eremu profesionala ere izan daitekeela ulertu behar dugu. EAEn, hizkuntzaren industriari urtean 600 milioi euro fakturatzen ditu, ia 5.000 pertsonari lanpostuak ematen dizkio. Aurrera egingo badugu, gure hizkuntza gure ogibide ere badela ulertu behar dugu. Herri mugimenduak ezinbestekoak dira, Zumaian asko daude eta gainera euskaraz egiten da, baina ez dugu ahaztu behar hurrengo urratsa profesionalizazioa dela”.

Jon Maia: “*Wazemank* bezalako produktu batzuk, bat-batean mundu guztia hasten da esaten ‘earki gatzik’, bertakoak imitatzen dituzte... Horrelako adibideak oso inportanteak iruditzen zaizkit, ari direlako gure egunerokotasunean erabili behar ditugun hizkuntza formak sortzen, ereduak ematen jendeari. Aberasten ari dira. Orain, horren aurrean *El conquistador del fin del mundo* badaukazu, hor galdu duzu erreferentzialtasunaren borroka, askoz indar handiagoarekin ari delako zabaltzen. Horregatik esaten nuen, estrategiak, zeri ematen zaion lehentasuna, errepideei edo hizkuntzari..., hori oso inportantea da.

Hasieran planteatu dugun globaltasun horretan, nire ustez, lokalki, herrietako sare txiki horiekin, su txiki horien bultzatan, hortik daukagu irabaztekoa. Erreferentzia hurbilenetan bihurtu behar dugu indartsu”. ■

Hiru hizlari, hiru begirada

Mahai inguruarekin batera, beste hiru hitzaldik osatu dute *Euskara, bestela ez gara* hitzaldi zikloa. Antolatze lanetan aritu den Belen Urangari eskatu diogu, labor-labor, ideia nagusien entresaka egiten laguntzeko.

Fermin Etxegoien

Jantzi euskara

Fermin Etxegoienaren arabera, euskara hautu bat da eta izango da, eta hautu hori estetikarekin dago lotuta, beste aldagai batzuen artean. Ausarta izan da alderdi hau planteatzean. Estetika zentzu zabalean planteatzen du, euskara hautatzea “jantzi” bat hautatzea da. Hautu horrek badu osagai komunitario bat, integratzailea. Eta horrekin batera, hizkuntzaren jostagarritasuna azpimarratzen du, hiztunari gozagarri izan behar zaio, bestela ez du erabiliko.

Joxe Manuel Odriozola

Euskara erdigunean

Abertzaleek euskararekiko izan duten jarrera azaldu zuen Joxe Manuel Odriozolak, hainbat adibide erabiliz. Odriozolarentzat euskara ez da inoiz izan abertzaletasunaren ardatz politiko nagusia. Kontu eskatze zilegizko bat egin, eta hizkuntzak zentralitatea hartu behar duela aldarrikatzen du. Berak oso ondo ikertu du zergatik garen hizkuntza gutxitua, estatuek zer estrategia jarri dituzten martxan, komunitatearen sentimenduan eragin arte. Bere diskurtsoan uler daiteke horri buelta emateko gauza bera egin beharko genukeela: euskara esparru guztietan nagusi izango den herri bat amestea. Baina ez bada ikusten hori posible denik, zein da bidea? Nola egingo dugu aurrera ez badugu tresna nahikorik euskarak bere bidea egin dezan?

Jon Sarasua

Txikiaren balioa

Sarasuaren hausnarketaren abiapuntua da gizarte globalak erronka berrien aurrean jarri gaituela eta horiei erantzuna emateko estrategia berriak behar direla. Eta hausnarketa hori oso zabaldua dago: erpin moduko batera iritsi gara, eta dinamika berberekin jarraitzen badugu beherantz joango gara aurrerantzean. Aurretik egindakoa oso garrantzitsua da, baina aurrera begira ez da nahikoa. Estrategia horiek definitzeko, herritik, gizartetik sortutako erakundeak jartzen ditu erdigunean eta haiei aitortzen die lidertza, erakunde publikoekin batera. Bere proposamena dator hiztun komunitatearen zenbait ezaugarri onartzetik: hiztun komunitatea minoritarioa da, txikia da, eta seguru asko hala jarraituko du izaten. Zerk emango dio balioa hiztunari hizkuntza gutxitua erabiltzeko? Hainbat elementu planteatzen ditu, tartean balio erantsiarena. Mundu globalizatuaren eta tokian tokiko kulturaren arteko dikotomiatik etor daiteke txikiaren aldeko balio erantsia. Eta Sarasuak dio Euskal Herrian badaukagula gizarte sare bat lan hori egin dezakeena.



NIK SORTU NIK BIRZIKLATU



Zumalako Udala



ni zumaianekin



*Aukera zabala bertako
arrain freskoan*



MARTXOA

ERAKUSKETAK

Martxoaren 2tik 18ra Arantza Jauregi, pintura erakusketa.

Martxoaren 20etik apirilaren 8ra: Valentín Manterola.

MARTXOA

Ostirala, 9

19:30ean Forondan, GUNEK antolatuta: Otoitz-meditazio musulmana.

22:00etan Aita Marin, antzerkia "CARRERA DE OBSTÁCULOS".

Larunbata, 17

19:30ean Alondegian, kontzertua URVAL ENSEMBLE taldearen "Prozesu Amaigabeak"

Igandea, 18

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia: BOROBIL taldearen "Alibaba".

Osteguna, 22

22:00etan zine forum "Tournée".

Ostirala, 23

19:30ean Forondan, GUNEK antolatuta, Solasaldia: PILAR ARANETA "La salud, nuestro compromiso con la vida".

22:00etan Aita Marin, antzerkia,

TTANTTAKA taldearen "Iparrak haizearen kontra".

Astelehena, 26

18:00etan Alondegian, Hitzaldia "Haur txikiak elikadura eta loa" Amaia Vazquez-ekin. Haurreskolek eta Udalak elkarlanean antolatuta

Ostirala, 30

22:00etan Aita Marin, Kontzertua: Patxi Saiz.

Larunbata, 31

20:30ean Parrokian, San Pedro Abesbatzaren eliz musikako saioa.



DARDARA ELKARTEAREN AURKEZPENA

Larunbata, 10

Zumaia musikako kolektiboaren aurkezpena.

Egitaraua:

19:00 'DARDARADA'

(Kofradiatik abiatuta tinbal poteoa)

20:30 LUNTXA (gaztetxean)

22:00 Kontzertuak:

- DERIVA
- GOT-HAM
- RAPA NUI
- NOX BLEED
- DJ. MR. DUBBIN

zapateixa
Konponketak

Maitatu Uranga

Oinetako eta erropak konponketak

Produktu eta material ekologikoa

Zumbido kalea 8 • 20750 Zumaia • 943 861 252 • 652 727 740

Zumaia Hotela
Jaletxen Kalategia

Alai auzategia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

EuroTaller
ZUMAIA MOTOR, S.L.

José Rey Alfaro
Gerente

Santxo Auzoa, 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumaiamotor@telefonica.net

ZUMAI
AUTO-ESKOLA

- Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA:
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behea • tel. 943 86 10 18 • ZUMAI

Zumaia optika

Txomin Agirre kalea, 6 tel./faxa: 943 143 057

TXALAPARTA
OPARIK

Angelito Soriano, 2
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
faxa 943 430 637

Guztiak hemen izan ziren

(Erkibe etxearen ikuspegitik)

Doinua: "Maisu Ruanda zer da"



1.
Herriko ertz batean
erdi erorian,
barrutik ere ez nengon
itxura onian,
PNV-k utzia
halako batian,
hutsik egonagatik
denbora luzian
jainkorik ez zan bistau
hamabost urtian!

4.
Elkastaro, hitzaldi
ostean bi trago,
kontzertuetan xirri,
musean "hordago!",
egunak joan ahala
geroz ta gehiago
ziren baina gauza bat
ez zekiten, klaro,
ez zirela egongo
nirean luzaro!

2.
Uztailan 9a
deabru kuadrila
asmo txarrik gabeko
ilusio bila
sartu ziren barrura
gazte asko, pila
zabalduz mila ate,
mila maratila,
piztu zuten etxe bat
ordurarte hila.

5.
Udako eguzkia
estaliz lau laino
etorri ziren porra
ta guzti honaino,
ez ditut onartuko
hainbeste engaino,
deabruak nahiago
baititut gaurdaino
aingeruz jantzitako
deabruak baino!

3.
Sabaia erortzeaz
ta lurra zikina,
garbitu sukaldea,
txukundu jardina,
xaguen topaleku
ziren lau izkina,
nahiz nere jabeari
eman zion mina,
bihurtu zen txoko bat
goxo ta duina.

6.
Gazteen gogoia ta
gazteen jarduna
dakar 80.000
euroko isuna,
berriro atera da
hormetan lizuna,
ta asper-asper eginda
pasa det eguna,
hau al da justiziatzat
ulertzen deguna?



BALEIKEko irakurleentzat

eskaintza

Errekortearekin,
etxeko muntaia debalde!

FAGOR IF3BS

- Indukzioa
- 3 foku
- Biselatua
- Banakako erloju programatzailea



369€



**ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK**

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endanetazumaia.com

ASPES garbigailua

ALF 1106

- 1.200 bira/min
- 6 kg



269€

469€

PANASONIC

LED-a

TXL32E30

- 200 Hz
- Full HD
- USB grabatzailea



44,90€

ORBEGOZO

MI1712





10 ARRAZOI HERRIKO DENDETAN EROSTEKO

1. Dendariak bizilagun ditugulako.
2. Gertu ditugulako.
3. Zumaiako jardueratan parte hartzen dutelako (festetan, herriko komunikabideetan, kirol elkarteetan...)
4. Herria dinamizatzen dutelako.
5. Zergekin gero eta zama handiagoa jasaten dutelako.
6. Dendarik gabe herri aspergarria litzatekeelako.
7. Herriko dendek sekulako berotasuna ematen diotelako herriari eta herritarren arteko harremanari.
8. Dendariek eskaintzen dutelako zerbitzu profesional onena eta goxoa.
9. Dendek hainbat lanpostu sortzen dituztelako.
10. Zumaia duin batean bizi nahi dugulako.

